



75 Zka. EKAINA 2019 JUNIO Nº 75

Boletín *Gizaberi* Boletina

Urte berria eta Gobernu Batzorde berria. Ziklo berri honi hasiera ematean, eskertu egin nahi dugu aurreko batzordeetan parte hartu duten elkargokideen lana, haien dedikaziorik gabe elkargoa ez bailitzateke gaur egun dena izango. Asko dira Elkargoan lanean ari direnak lanbidearen eraikuntzan: Elkargoaren izenean foro instituzionalera joanez, Batzorde Deontologikoetan eta Zorroari buruzko Dekretuaren Jarraipenekoan lan eginez, Gizarte Hezitzailearen irudi profesionala aldarrikatzean dauden gorabeherak eta zailtasunak jakinaraziz, elkargokide guztientzako interesgarriak izan daitezkeen ikastaroak proposatuz, e.a. Horiei guztiei ere eskertu nahi diegu euren inplikazioa eta Elkargoak bizirik eta kolektiboaren beharrezanean erantzuten jarrai dezan laguntzeari ez uzteko eskatu nahi diegu.

Gizaberrik elkargokide guztiei egin nahi die dei, batez ere oraindik zuzeneko partaidetza baterako espazioa aurkitu ez dutenei, Elkargoko egoitzara etor daitezenean, Idazkaritza Teknikoarekin edo Gobernu Batzordeko edozein kiderekin hitz egin eta lanbidearen eraikuntzan ekarpenak egin edo laguntzeko leku bat aurkitzeko. Ateak eta telefonoak zabalik daude. Gobernu Batzordea ez da organo estatiko bat eta zabalik dago ikuspuntu berriak, ikuspegi kritikoa eta ekarpenak egiteko gogoia duten pertsona berriak barnean hartzeko.

Asko dira 2019 honetarako erronkak:

- Elkargokideei emandako zerbitzuen sendotze eta dibertsifikazioa.
- Lan eskaintza publiko nahiz pribatuetan ordezkari-tza egokia izan dezagun zaintza, eta gizarte eta hezkuntza esku-hartzea balioan jartzea beste lanbide profil batzuekiko.
- Erakunde publiko eta pribatuekiko elkarrizketa berreskuratu eta indartu,
- Prestakuntza eta berrikuntza sustatu, elkarrizketa/analisi/parte-hartzerako espazioak sortzen lagunduz.
- Web orriaren diseinua optimizatzea, arinagoa eta iriste-erazagoa izan dadin.
- Eta azkenik, baina ez horregatik garrantzia txikiagoa emanez, elkargoaren ekin-tza/jardueraren batean, edozein mailatan, lotutako elkargokideen kopurua handitzea: ordezkari-tza, batzordeak, gobernu batzordea, egitura sendotu eta Elkargoaren jarraipena ziurtatzeko.

Espazio hauek baliatu nahi ditugu Gizarte Hezkuntzako datorren Biltzarrean parte hartzerantz animatzeko. Biltzarra datorren urtean (apirilaren 16-18) izango da Zaragozan. Urte bete baino gutxiago geratzen zaigu berriro topaketa eta hausnarketarako Estatu mailako foro batean elkartzeko; ez utzi aukera honi alde egiten. Esperientziak partekatuko ditugu, eta jardunbide egokiak, proiektuak eta lantzen ditugun programa guztiak balioan jarriko ditugu.

GHEE/CEESPVk hazi egin behar du eta aurrera egin elkargokideei emandako zerbitzuetan eta lanbidearen defentsan. Erakundeekiko harremanak sendotu behar ditugu, gizarte eta hezkuntza esku-hartzearen garapen teknikoa sustatu eta egitura optimizatu, zertarako-eta Gizarte Hezkuntza Euskadin indartsua izan dadin eta gizarte aldakor honek planteatzen dizkigun erronkei erantzun ahal izateko.

GIZARTE HEZITZAILEEN ELKARGOEN KONTSEILU NAGUSIA



Gizarte Hezkuntzako VIII Kongresuko-ZARAGOZA 2020- Batzorde Zientifikoa

Batzorde Zientifikoko kideek Zaragozan martxoaren 30ean Kongresuaren egitura zehazteko lehendabiziko bilera antolatu zuten. Kongresua hiri horretan 2020ko apirilaren 16,17 eta 18an egingo da. Gure Elkargoko kide batek batzordean parte hartzen du, lanbide eta akademi eginkizunegaitik, Batzorde Zientifiko Presidentziak hautatua.

Toni Julià Oroimenezko V. Edizioa

Lanak aurkezteko epean, 2018/10/02tik 2019/03/31ra lehiaketak zehaztuta, gure Elkargoak ez du elkargokide edo Euskal Erkidegoko Unibertsitateetako Gizarte Hezkuntzako ikasleen lanik jaso. Lahiaketaren ebazpena 2019ko urriaren 2an Zaragozan egingo da Gizarte Hezkuntza Nazioarteko Egunean.

Gizarte Hezkuntza eta Psikologia Kontseilu Nagusien arteko bilera.

Gizarte Hezkuntza eta Psikologia Kontseilu Nagusien ordezkariak Madrilan apirilaren 26an elkartu ziren Gizarte Esku-hartze arloan lanbideen egoera elkarrekin analisatzeko. Beste bilerak egingo zituztela informatu zuten.

Gizarte Hezitzaileen Elkargoen Kontseilu Nagusien Estatutuak onartzeko apirilaren 27ko GHEKNko Ezohiko Batzarrean Estatutuen proposamenari hainbat elkargoko ekarpenak analisatu eta Osasun, Kotsumo eta Ongizate Ministerioari adostutako dokumentua bidaltzea erabaki zuten.

Gizarte Hezkuntza Espetxe Instituzioetan: lanbidea sartzeko eta profesionalizatzeko beharra jardunaldia 2019ko maiatzaren 7an Malagako Unibertsitateko Fakultateko Gizarte Hezkuntza Zientzietako Fakultatean GHEKNERen laguntzarekin egin zuten.

Gizarte eta Sanitarioko arloko Lanbideen Batzordea

Gizarte Zerbitzu eta Sanitario arloko Lanbideen Batzordea sortzen duen SCB/93/2019, otsailaren 4ko agintearen arabera (BOE 06/02/2019) GHEKN partaidetako bat da. Talde horrek Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioarentzat interesgarriak diren gaiak buruz aholkatzea eta proposatzea izango du xede, baita, osasun-arloko eta gizarte-arloko lanbideei lotutako xedapen, hitzarmen eta arau-proiektuei buruz; baita, osasun-arloko eta gizarte-sektoreko lanbideei eragiten dieten giza baliabideen politikaren oinarriko printzipioei eragiten dieten arau-proiektuei buruzko proposamenak egitea.

GHEE-CESPVREN BERRIAK

- **Lanbidearen Sustatze eta Defentsa**

2019/05/16 Gipuzkoako Aldundiko Gizarte Politikako Saileko Haurren eta nerabeen babeseko zerbitzuburuarekin eta Indarkeria matxistaren emakume biktimak babesteko eta gizartaratzeko zerbitzuburuarekin Elkargoko Batzordeko bi kideekin bildu ziren aurkezpena eta lan egitasmo bat bideratzeko asmoz.

2019/06/26 Deustuko U. Gizarte Hezkuntzako Graduko koordinatzailearekin Elkargoko Batzordeko kide bat elkartu zen. Bileran bi erakundeen arteko komenioa aztertu eta 2019-20ko ikasturterako ekitaldiak planifikatzeko.

- **Barneko Lana** (Gobernu Batzordea eta Lan Batzordeak)

Etika eta Deontologia Batzordeako lagunak apiriletik ekainera hilean behin elkartu dira. Bilera bakoitzean landu dena Elkargoko gizarte sareen bitartez informatu dugu.

Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren Batzordeko kideak martxotik ekainaera batzar bana egin dute, bilera bakoitzean landu dena Elkargoko gizarte sareen bitartez informatu dugu.

2019/03/30 Elkargoko kide batek Gizarte **Hezkuntzako VIII. Kongresuko Batzorde Zientifikoko** bilerara bertaratu zen eta 2019/04/25ean bilera birtual (online) batean parte hartu zuen. 2019/05/29an Kongresuko programa garatzeko proposamena bidali zuen.

2019/04/16 eta 2019/06/04an martxoaren 30ean hautatu izan zen **Gobernu Batzordea** elkartu zen.

- **Elkagokideentzako Zerbitzuak**

2019/04/04 eta 04/09 Indarkeria Matxista prostituzio eta sexu esplotazio helburuko gizaki salerosketako testuinguruetan Askabidek emandako hitzaldia.

2019/05/10 **Bilboko CeSSAA** zerbitzura **Gizakiak** eskainitako bisitara 4 elkargokide joan ziren.

- **Instituzio Harremanak eta ordezkaritza (foroak, bilerak, ...)**

2019/04/29 Gizarte Hezkuntzako eta Psikologiako Elkargoen Kontseiluek antolatuta Elkargoko Gobernu Batzordeko kide batek Gizarte esku-hartze esparruan profesionaleen parte-hartzea analisatzeko bileran parte hartu zuen.

2019/05/06 **Adizioen Euskal Kontseiluko Batzorde Nagusian** Elkargoko Batzordeko kide batek parte hartu zuen.

- **Jardunaldi eta mintegietan parte-hartzea**

2019/04/17 Genero-ikuspegiak gizarte inklusioaren arloko esku-hartze espezializatuan txertatzeak dakartzan alde praktikoa mintegian Gobernu Batzordeko kide batek parte hartu zuen.

LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA**GIZARTE HEZITZAILEAK ESKOLA INKLUSIBOA GARATZEKO ESPARRU-PLANEAN**

Ikasturte honetan, eta hiru urteko indarraldia duelarik (2022 arte) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak [Eskola Inklusiboa Garatzeko Esparru Plana](#) aurkeztu du.

Kontzeptu honetan jasotzen den helburua da, bizitzarako kompetentzien garapen maila handiagoa lortze aldera, kalitatezko hezkuntza baterako sarbidea sustatzea eta, horretarako, haur guztiei modu pertsonalizatuan erantzungo zaio, eta eskola-ingurua izango da adingabeen beharrezkoen egokituko zaiena, ez haurrak eskolari. Era berean, plan honen beste ezaugarri batzuk aipatzekotan, esango dugu irakaslea izango dela aldatetaren eragile eta teknologiak funtsezkoak izango direla gizarte inklusioa sustatu eta eten soziala deritzona murrizteko.

Helburu horietakoren batzuk lortze aldera, egitasmoak kulturak, politikak eta hezkuntza-jardunak egokitzeko asmoa du, plan estrategiko berritzaileak formulatuz eta hezkuntza komunitatearen plano guztietan aldatetak sustatuz (sentsibilizazioa eta parte-hartzea), horrela, komunitate hori eta administrazioa era independentean eta, era berean, modu osagarrian, gara daitezten. Gainera, funtsezkotzat hartzen da gizarte eta komunitate arloko beste eragile batzuk ere inplikatzeko, familien parte-hartzeari aipamen berezia eginez.

Planaren garapen hau guztia ardatz estrategiko batzuetan artikulatuko da eta bizikidetzaren positiboa errazteko balioetan oinarrituko dira ardatz horiek, eskola askotarikoaren ardatz egituratzailea den aldetik; eta bertan, lehenetsi eta sustatu egingo dira politika eta jarduerak inklusiboak. Gainera, ikastetxeek eurek autonomia eta erantzukizuna izango dute prozesu horretan eta hezkuntza komunitatea gizarte eta osasun sistemarekin lankidetzan arituko da ikasleek ongizate psikosoziala erdiesteko.

Gauzak horrela, Barakaldoko Udaleko Hezkuntza sailak oso egoki irizten dio zirriborro honetan egiten den planteamenduari eta bat dator sail honek, udal mailan eta eskumen-markoa kontuan hartuta, lanerako oinarritzat hartzen dituen hezkuntza eta pedagogia ikusmoldeekin. Baina, Plan honekiko atxikimendua adierazteaz gain, egoki irizten diogu bertan gizarte hezitzailearen irudi profesionala egoteko beharra aitortzeari, arestian aipatutako helburuetariko asko garatu eta bertan parte har baitezake profil honen.

Gizarte hezitzailearen lana plan honen garapenean inplizituki sartutakotzat eman badaiteke ere, beharrezkoa irizten zaio lanbide honi berariazko aitortpen bat egiteari, hain zuzen ere, hezkuntza-irakaskuntza arloan gero eta beharrezkoagoa den lana aitortzeko.

LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

tze aldera. Ildo horretan, Barakaldoko Udalak hainbat programa sustatzen ditu hainbat ikastetxetan, eta berorietan irudi profesional honek protagonismoa hartzen du gainerako eragileekin batera. Programa horiek hainbat helburu dituzte: hezkuntza beharriaz erantzun, absentismoa eta eskola-uztea murriztu edo desagerrarazi, droga kontsumo problematikoei aurre hartu, bizikidetzaren egokia sustatu eta eskola-giro ona sortu, udalerriko gazteen artean herrian parte-hartzea sustatu, eta abar. Azken batean, aipatu dugun Eusko Jaurlaritzaren planean jasotako helburu batzuekin bat egiten duten programak dira.

Horregatik guztiagatik, sistema integraleko kontzeptu honen barruan sartu eta parte har dezan irudi honen berariazko aipamena egiteak bat egiten du planaren helburuekin, noiz eta plan honek ikasleen beharriaz hobetzeko gizarte-osasun-hezkuntza arloko baterako proiektuak sortzeko beharra aipatzen duenean, kontaktu puntualak izan beharrean. Gainera, egoki irizten zaio aipamen hori egiteari, planaren artikulatua bai baitaude beste irudi profesional batzuen berariazko aipamenak: fisioterapeutak, terapeuta okupazionalak edo osasun mentalaren arloko profesionalak.

Barakaldoko Udalean gizarte hezitzaileek urte hauetan burututako lankidetzaren ondorioz, baieztatu daiteke, beraz, gizarte hezitzailearena berezko ezaugarriak dituen lanbidea dela eta, esan den bezala, guztiz bateragarriak direla Eskola Inklusiboa Garatzeko Esparru-Planaren helburuekin.

Raúl Luceño
1181. elkargokidea
Barakaldoko Udaleko Hezkuntza Saila

EKARPENAK

**FAMILIEI ZUZENDUTAKO ORIENTAZIOA ETA AKONPAINAMENDUA
PEDIATRIAKO OSPITALIZAZIOETAN**

Ospitalea hiritar gehienek egunerokotasunetik at geratzen den espazioa eta honek berarekin dakarren funtzionamendua da. Gainera, ospitalea gaixotasunarekin lotzen da zuzenean eta gaixotasuna osasuntsu egotearen aurkakoa da. Beraz, ospitalizazioko egoerak bulnerabilitate egoerak dira, bai espazioa, funtzionamendua eta egoera arrotzak direlako eta ez delako jakiten halako egoera estresagarriei nola aurre egin modu egoki batean. Horrenbestez, garrantzitsua da testuinguru berrira egokitze profesionalen beharra, esperientzia ahalik eta hoberena izan dadin.

“La Pedagogía Hospitalaria es una rama de la Pedagogía Social que tiene por objeto la atención socioeducativa de las personas que se encuentran en una situación de enfermedad crónica, con la vida condicionada por esta circunstancia.” (Cárdenas eta Lopez, 2005, p.60) Definizio honen arabera ospital pedagogia gizarte hezkuntzari dagokion adar bat da, beraz, zuzen zuzeneko harremana du burututako ikasketekin (gradu). Horrenbestez, hona hemen gizarte hezitzailearen perfilaren defentsa.

Aurreko definizioa osatu eta nori zuzenduta dagoen zehazteko dator beste definizio hau. Honen arabera, haurren inguruko pertsona guztiei zuzendutako zerbitzua izan daiteke. Beraz, beste paragrafo honetan agertzen da familiari zuzendutako eskuhartzearen defentsa. “La Pedagogía Hospitalaria intenta responder a un fenómeno objetivo de la realidad de nuestro tiempo; es un intento de continuar con el proceso educativo de aquellas personas que están enfermas o convalecientes, de los familiares del mismo y de todas aquellas personas que interfieren en la vida del paciente.” (Cárdenas eta Lopez, 2005, p.60)

Baina zergatik egin behar da eskuhartzea familiarekin? Zein da arrazoia? Honako esaldi hau galdera horiei erantzuteko: “La familia es considerada como el soporte emocional y punto de referencia más importante para el niño.” (Fonseca, 2003, p.3) Horrenbestez, haurren ongizatea lortu nahi bada, familiaren ongizatea ezinbestekoa da ondoren sostengu izan ahal izateko.

Ochoa-ren (2003) iritziz honako hauek dira ospital pedagogiaren ezaugarri espezifikoak eta hobekien definitzen dutenak:

-Maduratibista: ospital pedagogia gaixotasun eta ospitalizazio esperientziaren baitan pertsonari garapen integralerako bidean haziera prozesua sostengatzeko luzatzen zaion laguntza da. Ospital pedagogia heltze pertsonala lortzeko instrumentua eta bidea izatea nahi da.

-Anbientalista: ospital pedagogiaren bidez gaixo dagoen pertsona zein bere familiako kideak inguru ezezagun batera (ospitalea) egokitzea nahi da. Horregatik gaixo dagoen pertsona eta familiakoentzat gida edo orientatzailea izatea planteatzen da, bereziki hiru bide hauetan:

+Haurra eta familia ospitalera egokitzea

+Ohiko ingurunearekiko deserrotzea saihestea (etxea, eskola, lagunak, hiria, lana, etab.)

+Ospital pedagogiaren autodesagertzea. Gaixotasuna eta ospitalizazioa egoera iragankorrak dira eta ez betirakoak. Horregatik, ospital pedagogiaren

EKARPENAK

arrakastarik handiena pertsonari unereren batean zerbitzua alde batera uzteko laguntza ematea da, hau da, pertsona halako zailtasuneko egoeren aurrean bere kabuz gai izatea bere jarrera autoerregulatzeko.

-Interakzionista: une berean agente desberdinek aurrera eramaten duten akzioa da (osasun profesionalak, ospitaleko irakaslea, pedagogo, etc.) eta hala beharrez pertsona ugariri zuzentzen zaien ekintza da gainera (gaixo dagoen pertsona, familia, eskola, ospitalea, etc.), beti ere haur ospitalizatuarentzako eta honen familiarentzako elkarlanean jardunik.

Gizarte hezitzailearen ospitaleko funtzio konkretuei dagokionez, honako hauk zehazten dituzte Cárdenas eta López (2005) autoreek laburpen moduan:

- Hartzailearen testuinguru soziala prozesu hezitzailean inplikatu, bereziki familia, lagun taldea, eskola, bizilagunak, etc. Baita ospitalizazio prozesuan ere.
- Ospitalizatutako pertsonaren prozesu sozialeko marginazioa saihestu, baita honen aislamendu soziala ere
- Testuingurua, jokaerak eta jarrerak behatu eta arrisku egoeran dauden subjektu edo taldeak detektatu
- Ospitalea utzi ondoren hartzailea testuingurura normalizazioz itzultzea lortu. Horretarako garrantzitsua da hartzailea bere egunerokotasunera itzultzean arraro ez sentitzea.
- Elkarbizitzako harremanak dinamizatu, bai ospitaleko testuinguruan eta baita familiako kideen eta osasun profesionalen artean ere, batez ere talde dinamizazioa eta komunitate dinamizazioaren bidez.
- Familiako kideen, gaixo dagoen pertsonaren eta osasun profesionalen arteko mediazioa
- Mota guztietako errekurtsioak estimulatu esku-hartze hezitzaile alternatiboa ahalbiderratu
- Gaixo dagoen pertsonaren garapen globala lagundu
- Formakuntza, informazioa eta orientazioa eman

Kantabria izan da Espainiar Estatuan Gizarte Hezitzaile perfila osasun zerbitzu publikoen barruan onartu duen lehenengo autonomia erkidegoa. 2017ko abenduaren 29ko aginduan agertzen den moduan, honakoa izango da gizarte hezitzailearen funtzioa: "desempeñar, con carácter general, los servicios de acompañamiento y apoyo al paciente y sus familiares, así como el elemento armonizador de las relaciones entre pacientes y el equipo asistencial de las Instituciones Sanitarias del Servicio Cántabro de Salud."

Guzti hau kontutan hartuta, honako hauek izan dira nire Gradu Amaierako Lanaren helburu orokorrak:

- Donostiako Unibertsitate Ospitalean pediatria arloan ospitalizatutako haurren familiei egoera eramangarriago izateko eskuhartzea planteatu.
- Gizarte hezitzailearen perfila osasun zerbitzuen barnean defendatu.

Donostiako Unibertsitate Ospitalean zentratu dut lana, eta beraz, ezinbestekoa izan da lana burutzeko ospitaleko berri izatea. Horrenbestez, iturri bibliografikoez gain, elkarrizketak burutu ditut bertako profesional eta familiek nire proposamen teorikoaren inguruan duten

EKARPENAK

iritzia jasotzeko eta beharrak identifikatzeko.

Elkarrizketatu guztiek izan dute zerbitzu psikosozialaren inguruko iritzi positiboa. Hau da, laguntza guztia ona dela esan dute, ongi etorria izango litzakela. Azken batean ospitaleko bizipenak oso gogorak direla eta garrantzitsua dela bertako pertsonala alboan egon eta lagundu ahal izateko. Bizipenen inguruko galderez gain zerbitzu hori nolakoa izan beharko lukeen zehaztu da elkarrizketatuekin batera.

Beste profesional baten beharra ikusi da, baina orokorrean psikologoari egin zaio erreferentzia. Agian gizarte hezitzailearen perfila ez delako hain ezaguna izan daiteke. Izan ere, elkarrizketatuek ere ez zuten oso ongi bisualizatzen gizarte hezitzailearen perfila. Honek oraindik ere ezezaguna dela adierazten du. Hala ere, ezjakintasun hau medio, inork ez ditu atek itxi.

Proposamen honek ikuspuntu hezitzailea du gurasoei hainbat teknika erakutsiko zaizkielako ondoren beraien kabuz aurrera eraman ahal izateko, bai ospitalean zein ospitalez kanpoko egoeretan. Horrenbestez, helburua ospitalera ahalik eta hobekien egokitzea izanik, horretan lagunduko da errekurtsioak luzatuaz eta gurasoen konpetentziak areagotuz, beraien baitira haurren sostengu nagusia, eta ez ospitaleko langile bat.

Honakoa da proposamenaren eskema nagusia:

Fasea

Informazioa eman

Sostengu emozionala

Fasea

Arnasketa eta erlaxazioa

Bideratutako imajinazioa

Autoinstrukzioak

Jone Esnal
Gizarte Hezitzailea
Gradu Amaierako Lanean oinarritutako artikulua

INTERESGARRIKOAK



Fernández, P., **Guía para profesionales ante chicas adolescentes que sufren violencia de género: saber mirar, saber acoger, saber acompañar.** Sevilla, Instituto Andaluz de la Mujer, 2018, 79 p.

La violencia de género en mujeres menores de edad constituye un fenómeno de creciente interés durante los últimos años.

Cada vez son más numerosos los y las profesionales que se enfrentan al reto de apoyar y acompañar a mujeres adolescentes que sufren violencia machista.



Oliva i Peña, G., Saiz i Lloret, M. (coords.), **Intervención con adolescentes que viven o que ejercen relaciones afectivo-sexuales abusivas u otras manifestaciones**

de violencia machista desde los servicios sociales públicos de Barcelona para la atención ambulatoria de tratamiento en violencia machista. Barcelona, Ajuntament de Barcelona, 2015, 244 p.



Próximo Número 29 La Educación Social en la segunda generación de leyes de servicios sociales. Edita CGCEES



Educación Social nº 71 Educación Social y Escuela. Edita: Fund. Pere Tarrés



Jaraíz, G. (ed.), **Bienestar social y políticas públicas. Retos para pactar el futuro.** Serie: Investigación y Debate n. 215, Madrid, Los Libros de la Catarata, 2018, 334 p. **Ref. 539478**
Localización: SIIS 539478

Frente a quienes tachan al Estado de bienestar de obsoleto y prescindible, este libro reconoce sus logros, reivindica su vigencia y propone reformas que lo hagan más eficaz y eficiente, adaptándolo a los nuevos riesgos sociales. La obra se inscribe en una rica corriente de estudios interesada en señalar y examinar los indicios del progresivo declive del Estado de bienestar tal como fue concebido a mitad del siglo pasado en Europa Occidental, para, de esta forma, poder plantear medidas que favorezcan su reconfiguración.

URRENGO BOLETINETAN SARTZEKO PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUN ceespv@ceespv.org RA BIDALI AHAL DITUZUE. ERA BEREAN, ZUEN INTERESEKOA DEN EDOZEIN ESPARRUTAN PARTE HARTZEKO GUREKIN HARREMANETAN JAR ZAITEZTE.